

Garapenerako Hezkuntza unibertsitatean izeneko

JARDUNALDIAK:

Eztabaidarako ekarpenak

(Hegoa. UPV/EHU)

Juan José Celorio Díaz

Irakasleen Unibertsitate Eskola UPV/EHU

Gema Celorio Díaz

Hegoa. UPV/EHU

Alicia López de Munain Solar

Hegoa. UPV/EHU

Laguntzen dute:



Argitaratzailea:



www.hegoa.ehu.es

Hegoa. UPV/EHU

Zubiria Etxea

Lehendakari Agirre etorbidea, 81 • 48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91 • Fax: 94 601 70 40

hegoa@ehu.es

Hegoa. UPV/EHU

Carlos Santamaría Zentroa

Elhuyar plaza, 2 • 20018 Donostia-San Sebastián

Tel.: 943 01 74 64

maribi_lamas@ehu.es

Hegoa. UPV/EHU

Arabako Campus-eko Liburutegia

Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 42 87 • Faxe: 945 01 42 87

gema_celorio@ehu.es

2012ko abendua

ISBN: 978-84-89916-76-0

Itzulpena: Hitzek. Itzulpen eta hizkuntza zerbitzua

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

 Aitortu-Ez komertziala-Lan Eratorririk Gabe 3.0 Generikoa Espainia

Creative Commons-en lizentziarekin dago. Aske zara lan hau kopiatzeko, banatzeko eta publikoki hedatzeko, betiere kontuan hartuta lanaren kredituak aitortu behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza xedetarako erabili. Ezin duzu lan hau bestelakotu, eraldatu edo lan eratorririk sortu hartatik abiatuta.

Baimen osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>



Garapenerako Hezkuntza unibertsitatean izeneko

JARDUNALDIAK:

Eztabaidarako ekarpenak

(Hegoa. UPV/EHU)

Juan José Celorio Díaz

Irakasleen Unibertsitate Eskola UPV/EHU

Gema Celorio Díaz

Hegoa. UPV/EHU

Alicia López de Munain Solar

Hegoa. UPV/EHU

¹ Txosten hau hemen aurkeztu zuten: *I Congreso Internacional de Estudios del Desarrollo. Desafíos de los Estudios de Desarrollo*. REEDES (Garapenerako Ikasketen Espainiako Sarea). Santander, 2012ko azaroaren 14tik 16ra.

Aurkibidea

Sarrera	5
2012. Garapenerako Hezkuntza, izan daitekeen eta beharrezkoa den beste mundu bateranzko trantsizioan	6
1. Garapenerako Hezkuntza unibertsitatean izeneko jardunaldiak. Parte-hartzea, baterako garapenerako lankidetzeta eta baterako proposamenak sustatzeko ahalegin bat	9
2. Garapenerako Hezkuntzaren egoera unibertsitatean. Salaketa eta proposamena	12
2.1. Garapenerako Hezkuntzaren diagnostikoa. Argi-ilunez betetako ikuspegia	13
2.2. Esperientzien aniztasuna Estatu espainiarrean. Eredu adore-emailea	15
2.3. Ekuador eta Mexikoko adiskideen txostenak, erkatzeko eta ikasteko esperientzia gisa	18
3. Parte hartzeko eta eztabaidatzeko guneak. Garapenerako Hezkuntza eraikitzen. Ikuspegiak, tresnak eta estrategiak	23
3.1. Sentsibilizatzeko estrategiari buruz	24
3.2. Prestakuntza eta irakaskuntzako estrategiari buruz	25
3.3. Ikerkuntzako estrategiari buruz	26
3.4. Eragin politiko eta gizarteko mobilizazioko estrategiari buruz	27
Ondorioak	29
Bibliografia	33



Sarrera

2012. Garapenerako Hezkuntza, izan daitekeen eta beharrezkoa den beste mundu bateranzko trantsizioan

Tango zahar batek dioenez, “hogei urte ez dira ezer...”. Hala ere, 1990. urtetik orain arte igaro den hogei urteko zikloari erreparatzen badiogu, ez dugu oso argi izango letra zahar horrek oraindik arrazoia duen edo ez. Txosten hau idazteari ekin genionean, ia hilabetea falta zen Lurraren Gailurraren XX. urtemuga bete zedin. Lurraren Gailurra 1992. urteko ekainean izan zen Rio de Janeiron, eta orain mundu-mailako beste hitzordu bat sortu da ospakizun horren inguruan, “Rio+20” izenekoa. Orduko ekitaldi hartan, alde batetik, Nazio Batuek babestutako Ingurumen eta Garapenari buruzko biltzarra egin zen, eta, bestetik, garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen eta gizarteko mugimenduen bilera paraleloak egiten hasi ziren. Gero, foro paraleloen moduan eratuta, bileren eredu horrek arrakasta handia izan zuen, eta hortik sortu zen mugimendu alterglobalizatzailea.

Alabaina, 1992. urteak, garapen eta iraunkortasunari lotutako arazoei buruz azaldu zen mundu-mailako kontzientzia kritikoa eredu bat izateaz gain, orduan zabaldu ziren beste ahots, beste aurpegi eta hitz batzuk ere irudikatu zituen, hain zuzen, Amerikako herri indigenen ahotsak, Espainia eta Latinoamerikaren arteko “elkartzea” izan zenenetik 500 urte igaroak zirela ospatzeko egin zen zorigaiztoko ahalegin neokolonialaren aurrez aurre jarriak. “500 urteko erresistentzia” izeneko kanpainak beste eragile batzuk ere bildu zituen, iragari eta -jakina- etorkizunari buruz guztiz ikuspegi desberdinak

zituzten eragileak. Handik urte eta erdira, matxinada zapatis-ta izan zenean, mugimendu hori areago indartu zen. Izan ere, matxinada horrek diskurtso berria eta alternatiboa bultzatu zuen, aurre egiteko, elkartasuna adierazteko eta lankidetzan aritzeko estrategia berriak zekartzan diskurtsoa.

Horren ondorioz, kontzientzia berri bat azaldu zen mundu-mailan, aurre egiteko praktika berriak zekartzan kontzientzia bat, izaera neoliberala eta merkataritzakoa zuen globalizazioa gidatzen ari zen ereduaren aurrez aurre jarria. Handik bi urtera, mobilizazio bat izan zen “Washingtongo Adostasuna” -Nazioarteko Diru Funtsak eta Munduko Bankuak egina- izenekoa ospatzeko instituzioek egin zuten urtemugaren aurka; eta, horren ondoren, ondoz ondoko mobilizazioak izan ziren, Emakumeen Munduko Martxak planeta osoan barrena hedatu baitzituen bere aldarrikapenak. Egia esan, XX. mendearen azken hamarkadaren inguruan koka genezake ziklo hori. Gerra hotza amaitu zen, “benetako sozialismoa” izeneko blokea behera etorri zen, eta kontrol globalerako estrategia berriak erabiltzen hasi ziren, Iraken kontrako lehenengo gerra piztu zenean, 1991. urteko urtarrilean. Orduan, mugimendu kritiko zabala sortu zen horren aurka.

Dena dela, urte horietan izan ziren beste gertaera batzuk ere azpimarratu behar ditugu. Lehenengo gertaerak eragin handia izan zuen garapenaren esparruan: Nazio Batuen Garapenerako Programaren Giza Garapenari buruzko I. Txostena azaldu zen (1990), eta horrek hausnarketa zientifiko-sozial zabala piztu zuen, pertsonak zituzten aukerak eta gaitasunak ugaltzarekin garapenak zuen lotura zela eta ez

zela; izan ere, lehenago, hazkunde ekonomikoa baizik ez zen kontuan hartzen ugaltze hori azaltzeko.

Eraberean, 1990. urteaneginzen lehenbiziko aldiz Garapenerako Hezkuntzari buruzko I. Biltzarra, Vitoria-Gasteizen. Estatu osoan antolatu zen mota horretako lehen ekitaldia izan zen; eta gobernuz kanpoko lankidetzako mugimendua eta hezkuntzako mugimendua bildu zituen, Garapenerako Hezkuntzaren zentzua eta irismena argitzeko xedez.

Hogei urte hauetan, bi edizio gehiago izan dira orain arte: Garapenerako Hezkuntzari buruzko II. Biltzarra, “Zeharkakotasunetik hezkuntza globalera” izenekoa (1996), eta Garapenerako Hezkuntzari buruzko III. Biltzarra, “Hezkuntza eraldatzailea globalizazioaren erronken aurrean” izenekoa (2006). Biltzar horiek guztiak gune egokiak izan dira Garapenerako Hezkuntzako estrategiak berrikusteko, eztabaidatzeko eta proposatzeko. Hala ere, azken biltzarrean unibertsitateko irakasle gehiago izan da; eta horrek esan nahi du unibertsitate-arloan Garapenerako Hezkuntzaren eredia azaltzen ari dela, eta, era berean, kezka dagoela, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua ezartzeak izan ditzakeen ondorioen inguruan.

Hala, beraz, estatu espainiarrean, Garapenerako Hezkuntza bidea urratzen joan da, lankidetzaren munduko praktika-rekin eragin-trukean jardunez, eta, era berean, ekimenen esparru zabalago batekin arituz, hain zuzen, globalizazio neoliberalarekin, garatzeko dagoen eredu nagusiarekin eta hezkuntzarekin berarekin kritikoak diren ekimenen esparru batekin.

Txosten honen bidez, Garapenerako Hezkuntzak unibertsitatekoa bezalako arlo berezi batean duen zereginen kokatu nahi dugu azterketa. Unibertsitatea orain dela gutxi hasi da lankidetzako eragile gisa aritzen, eta, beraz, Garapenerako Hezkuntzako eragile estrategiko gisa izan dezakeen egin-kizuna oraintsukoa da. 2002. urtetik orain arte, bost biltzar izan dira estatuan unibertsitatearen eta lankidetzaren gaia lantzeko; eta biltzar horietan argi azaldu da lankidetzak eta Garapenerako Hezkuntzak instituzio horien barruan zein egoeratan dauden.

REEDES Garapenerako Ikasketen Espainiako Sarea agertzeak eta, horrez gain, txosten honen xedea den biltzarra bera hor egoteak argi islatzen dute garapenari eta lankidetzari buruzko hausnarketa arlo akademiko-zientifikoan kokatzeko dagoen joera; eta, gure ustez, hausnarketa horrek Garapenerako Hezkuntzari buruzko gaiak ere hartu behar ditu barne.

Garrantzikoa iruditzen zaigu Garapenerako Hezkuntza garapenari buruzko ikasketen esparruan kokatzea, jakintzaren ekoizpenaren arloan, ikerketako, prestakuntzako eta gizarte-berrikuntzako programen artean, dagoen ikuspegi estua gainditzeko estrategia egoki gisa, hau da, Garapenerako Hezkuntza garapenarekin lotu arren, lankidetzaren gune murriztean baizik lotzen ez duen ikuspegia gainditzeko. Era berean, egoera zabalagoan kokatu nahi dugu Garapenerako Hezkuntza, esparru akademikoa gaindituta. Hala ere, bi abiaburu hartu beharko ditugu kontuan ezinbestez, unibertsitateko Garapenerako Hezkuntzako praktikan arrastoa utzi duten bi abiaburu: a) alde batetik, unibertsitateko lankidetzak bera eta

horrek unibertsitateko Garapenerako Hezkuntzaren egoerari begira dituen ondorioak; eta b) unibertsitateak Garapenerako Hezkuntzari buruz egiten duen kontzeptualizazioa bera.

Txosten honek lehenbiziko berrikuspena egin nahi du bi alderdi horiei buruz. Zein ondorio izan du unibertsitatea lankidetzaren esparruan sartzeak? Zein eragin izan dute unibertsitateak Garapenerako Hezkuntzan sustatu dituen lankidetzako praktikek? Lankidetzaren eta Garapenerako Hezkuntzaren menpekoak diren bi hitz dira? Edo autonomoak eta elkarren menpekoak al dira? Horrez gain, hurbilpen bat egin nahi dugu, unibertsitateak Garapenerako Hezkuntzari buruz duen berezko diskurtsoa prestatzeko izan duen moldea azaltzeko, bere eginkizun instituzionaleko ohiko praktikekin nola jarri duen harremanetan jakiteko, eta instituzio gisa Garapenerako Hezkuntza sustatzeko zein estrategia proposatu duen argitzeko.

Gure abiaburuko hipotesiari jarraiki, lankidetzaren eta Garapenerako Hezkuntzaren artean ez da inola ere egon harreman sinbiotikorik, osagarrikerik, biontzat indartzailea den harremanik. Aitzitik, unibertsitateko lankidetzaren rol nagusia hartzen eta instituzionalizatzen joan den heinean, Garapenerako Hezkuntzaren ikuspegia ahultzen eta lausotzen joan da, eta, era horretan, galdu du unibertsitateko bizitzari eman ziezaiotkeen izaera eraldatzailea.

Gure azterketan, Hegoa - UPV/EHUren Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenerari Buruzko Ikasketen Institutuak antolatu zituen eta 2011ko azaroaren 24an eta 25ean Bilbon izan ziren *Garapenerako Hezkuntza unibertsitatean* izeneko jardunaldietan izan ziren eztabaidak ikertuko ditugu. Ondorio gisa, jardunaldi horietarako jarri ziren helburuak zenbateraino lortu diren egiaztatu ahal izango dugu:

- a) Garapenerako Hezkuntzak unibertsitatean duen egoerari kasu egitea.
- b) Latinoamerikako eta gure alderdiko hezkuntzako eragileen arteko elkarriketa piztea.
- c) Etorkizunari begira esku hartzeko ildo estrategiko batzuk zehaztea.



**1. Garapenerako Hezkuntza unibertsitatean izeneko jardunaldiak.
Parte-hartzea, baterako garapenerako lankidetzeta eta baterako
proposamenak sustatzeko ahalegin bat**

Hegoa Institutuak *Garapenerako Hezkuntza unibertsitatean* izeneko jardunaldiak² antolatu ditu. Aholku-batzorde bat arduratu da jardunaldi horiek zehazteaz; eta batzorde horretako zazpi kideetatik hiru³ Hegoa Institutuaren Garapenerako Hezkuntzako arlokoak dira. Batzordea eratzen duten beste lagunek entzute handia eta ibilbide luzea dute Garapenerako Hezkuntzaren esparruan, oro har, eta unibertsitatearen arloan, bereziki.

Ignacio Álvarez Granadako Unibertsitateko Garapenerako Lankidetzako Ekimenen Zentrokoa da (CICODE)⁴. CICODE zentroak honela definitzen du bere burua: “Granadako Unibertsitatearen menpe dagoen erakunde bat da, eta laguntza gehien behar duten herrialdeen eta gizarteko sektoreen garapena sustatzeko xedez sortu zen. Nazioarteko lankidetzak eta garapenerako laguntza Granadako Unibertsitateak bere gain hartu nahi duen ezin saihestuzko betebeharrak dira; eta, ildo horretan, unibertsitateak lankidetzan aritu nahi du instituzio publikoekin eta pribatuekin, zerbitzuak egiten, eta gure ingurune hurbilean eta Hirugarren Munduko herrietan azaltzen diren beharrezko premiazkoenak betetzen, betiere, arreta berezia eginez Afrikako iparraldeari eta Latinoamerikari”.

Alejandra Boni⁵ Valentziako Unibertsitate Politeknikokoa da. Ereduzko profesionala da Garapenerako Hezkuntzako proiektuak unibertsitate-esparruan sustatzeko eta ikertzeko lanetan. Ingeniaritzen esparru osoan hedatuz joan diren Garapenerako Hezkuntzako sareen kide garrantzitsuenetakoa bat izan da Boni -noiz Ingeniería sin Fronteras bezalako

elkarteei loturik, noiz era autonomoan-. Unibertsitate eta lankidetzari buruzko biltzarretan hartu du parte, eta orain REEDES sarean sartuta dago. Horrek argi erakusten du zenbateko garrantzia duen, eta zein ibilbide oparoa duen egina.

Aquilina Fueyo⁶ Oviedoko Unibertsitatekoa da. Fueyo ere ereduzko pertsona bat da, estatu espainiarreko Garapenerako Hezkuntzaren esparruan, hasieratik bertatik ia. Hezkuntza Fakultateko dekanoa ohia Oviedoko Unibertsitatean, eta Didaktika eta Eskolako Antolakuntza saileko kidea da. Ikus-entzunezko alfabetizazioa eta Garapenerako Hezkuntzan Hegoaldeari buruz dagoen imaginarioa hartu ditu bere ildo eta ikerketa-lanaren jomugatzat, eta Garapenerako Hezkuntzak Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Espazioan bete duen zerregina ere aztertu du.

Javier de Prado Kordobako Unibertsitatekoa da, Garapenerako Hezkuntzarekin engaiatuta dago, eta Garapenerako Hezkuntzari buruz Kordobako Unibertsitatean egiten diren jarduerak gehien sustatzailea da. Gaur egun, Garapenerako Hezkuntzako Katedrako zuzendaria da. Katedra hori “Kordobako Unibertsitatearen organo bat da, Nazioartekotze eta Lankidetzako Errektoreordetzaren menpekoa, eta Lankidetzak eta Elkartasunaren Arlokoa. Katedraren helburu nagusia da unibertsitateko erkidegoan Garapenerako Hezkuntzako eta prestakuntzako prozesuak bultzatzea, eta biltzeko gune egoikia izatea, Garapenerako Hezkuntzarekiko interesa duten, eta bidegabea eta aldakorra den mundu honetako errealitatearekin engaiatzeko, eta errealitate hori eztabaidatu, ezagutu eta ikertzeko prest dauden pertsona guztientzat⁷.

² Jardunaldiei buruzko dokumentazioa eta bideoak Hegoa Institutuaren web orrian daude ikusgai: www.hegoa.ehu.es/es/educacion/jornadas_de_educacion_para_el_desarrollo_en_la_universidad.

³ Pertsona horietatik bik instituzioaren Garapenerako Hezkuntza taldeko kide dira, eta Garapenerako Hezkuntzari buruz Vitoria-Gasteizen izan diren estatuko hiru biltzarren antolakuntzan hartu dute parte, 1990., 1996. eta 2006. urteetan. Taldeko hirugarren kidea 2005. urtean sartu zen, eta hark ere ibilbide zabala du egina Garapenerako Hezkuntzaren esparruan.

⁴ Hona hemen CICODE zentroaren web orria: <http://cicode.ugr.es/>

⁵ Hona hemen bere argitalpenek Dialneten duten aipamena: <http://dialnet.unirioja.es/servlet/autor?codigo=1271506>

⁶ Hona hemen bere argitalpenek Dialneten duten aipamena: <http://dialnet.unirioja.es/servlet/autor?codigo=89070>

⁷ Ikusi Katedraren orria hemen: www.uco.es/internacional/cooperacion/catedra-cooperacion-desarrollo/index.html

Era horretan, aholku-batzordeak eredu garrantzitsutzat har dezakegu, unibertsitate-arloko Garapenerako Hezkuntzaren esparruan. Haren babespean, eta Hegoa Institutuaren antolakuntzapean, jardunaldien egitura eratzen da⁸, jarraian azalduko dugun moduan.

Hegoa Institutuko taldeak bultzatutako azterketa-diagnostiko bat da jardunaldien abiaburua, aholku-batzorde horren lankidetzaren bidez diseinatutakoa. Azterketa-diagnostiko hori osoko bilkura batean azaltzen da. Beste bi osoko bilkuretan, Ekuadorreko Amazonian eta Mexiko Barruti Federalean egindako bi esperientzia aztertzen dira. Lehenengo esperientzia Kultura arteko Hezkuntza Elebidunari buruzkoa da, UPV/EHUK lankidetzako proiektu bat baitu abian esperientzia horren bultzatzaileekin. Bestetik, maisu-maistren hasierako prestakuntzako curriculumeko zeharkakotasunaren esperientzia ere aztertzen da.

Esperientzien Mahai-ingurua izenpean egindako osoko bilkurak alderdi hauek ditu aztergai: “Generoa Garapenerako Hezkuntzan”, “Herritartasun globaletik garapen-arloko profesionalak prestatzea” eta “Bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua”. Beste osoko bilkura batek “Garapenerako Hezkuntzak unibertsitatean duen zereginari buruzko hausnarketak eta ekarpenak” izeneko mahai-ingurua lantzen du, eta, bertan, jardunaldietara gonbidatuta zeuden hizlari guztiek hartzen dute parte. Azkenik, azken osoko bilkuran, aldi bereko lan-taldeetan lortutako ondorioak aurkezten dira.

Lan-taldeak aldi berean eratu ziren, eta bi bileretan kokatu ziren: bata lehenengo egunean eta bestea bigarrean. Lehenengo

bileran, Garapenerako Hezkuntzak dituen lau estrategia handietan aurkeztutako txostenak eman ziren ezagutzera, eta eztabaidatu ziren, era honetan taldekatuta: a) sentsibilizazioa, eragin politikoa eta gizarteko mobilizazioa; b) prestakuntza eta irakaskuntza; c) ikerkuntza eta berrikuntza; eta d) zeharkakotasuna. Generoa, kultura artekotasuna, bakea eta giza eskubi-deak eta iraunkortasuna. Lan-taldeen bigarren bileran, aldi berean, ildo estrategikoak zehaztu zituzten, unibertsitate-esparruan Garapenerako Hezkuntza indartzeko.

Hortaz, zortzi bilera izan ziren, eta horietatik bostetan hitzaldietako ekarpenak landu ziren, bi bileratan parte-hartzaile guztiek egindako lana aztertu zen, eta bilera batean ondorio orokorrak azaldu ziren. Egitura horren bidez, nolabait bateratu nahi izan ziren, alde batetik, antolatzaileen ustez garrantzizkoak ziren zenbait esperientziaren ekarpenak, eta, bestetik, jardunaldietan izan ziren pertsonen eztabaidatzeko eta parte hartzeko izan zituzten guneak. Izan ere, txostenak⁹ ez dira zuzenean aurkezten; lan-talde bakoitza dinamizatzeke ardura duten pertsonen aurkezten dituzte batera, eta ahalegina egiten dute haien ezaugarriak nabarmenenak antolatzeke eta zentzuz hornitzeko, gero, dagokion lan-taldeak horri buruzko eztabaida egin dezan.

Hala, beraz, badirudi nolabaiteko koherentzia dagoela erakundeak adierazitako helburuen eta jardunaldien artean, hau da, helburu horiek lortzeko erakundeak baliatutako tresnaren artean.

⁸ Jardunaldietan 103 lagunek hartu zuten parte, eta autonomia-erkidego askotakoak ziren denak. Parte-hartzaile horien % 50 Euskal Autonomia Erkidegokoa eta Nafarroakoa izan zen, eta beste % 50 Gaztela eta Leon, Andaluzia, Kantabria, Katalunia eta Madrilgoa; ordekaritza urriagoa izan arren, Valentziako Erkidegoko, Balear uharteetako eta Kanaria uharteetako lagunek ere parte hartu zuten. Jardunaldietan izan ziren pertsonen % 60 baino gehiago unibertsitatearen arlokoa zen, % 34 nazioarteko elkartasunaren esparrukoa eta garapenerako gobernu kanpoko erakundeetakoak zen, eta % 3, azkenik, Derrigorreko Hezkuntzako eta sindikatuetakoa.

⁹ Guztira, 15 ziren; eta lau alderdietan aurkeztu zituzten: 3 Sentsibilizazio, eragin politikoa eta gizarteko mobilizazioan, 7 Prestakuntza eta irakaskuntzan, 3 Ikerkuntza eta berrikuntzan, eta 2 Zeharkakotasuna. Generoa, kultura artekotasuna, bakea eta giza eskubideak, iraunkortasuna izeneko alderdian.



2. Garapenerako Hezkuntzaren egoera unibertsitatean. Salaketa eta proposamena

2.1. Garapenerako Hezkuntzaren diagnostikoa. Argi-ilunez betetako ikuspegia¹⁰

Instituzioek hasiera egin ondoren, jardunaldiak hasi ziren, unibertsitateko Garapenerako Hezkuntzaren Diagnostikoa aurkezteko hitzaldiarekin. Azterketa hori Hegoa Institutuaren hezkuntzako taldeak egin du, eta, lehen esan bezala, Aholku Batzordearen laguntza jaso du langintza horretan. Diagnostikoak UPV/EHU hartzen du ardatz gisa, baina estatuko unibertsitate guztietan Garapenerako Hezkuntza zein egoeratan dagoen lantzen duen azterketa generikoan sartuta. Hurbilpen kualitatibo eta esploratorio bat da, unibertsitatean Garapenerako Hezkuntzaren inguruan dauden joerak, kontraesanak eta polemikak zehaztekoa.

Azterketak 2006. eta 2011. urteen arteko aldia hartzen du aztergai, eta data horien aukeraketa ez da halabarrezkoa. Izan ere, 2006. urtean Garapenerako Hezkuntzari buruzko III. Biltzarra izan zen; eta urte horrextan LOE (Hezkuntzaren Lege Organikoa) atera zen, eta, harekin batera, Herritartasunerako Hezkuntza izeneko ikasgaia ezartzeko proposamena ere bai. Bestetik, urte horrextan, Unibertsitate eta Lankidetzari buruzko III. Biltzarra izan zen Alcalá de Henaresen. Azkenik, urte horrextan, bolada betean zegoen Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua ezartzeari buruzko eztabaida.

Hala ere, eta biltzen den informazioa sei urteko denboraldi horri dagokion arren, labur aztertzen da Garapenerako Hezkuntzak unibertsitatean zein egoeratan dagoen, eta, aldi berean, Garapenerako Hezkuntzaren bilakaera orokorra ikertzen da,

1990eko estatuko I. Biltzarrarekin hasi, eta 2002. urtetik aurrera bi urtean behin izaten diren unibertsitate eta lankidetzari buruzko aurreko biltzarrak barne hartuta¹¹. Diagnostikoak inkesta, elkarrizketa, eta azterketa dokumentalen bidez informazioa biltzeko metodologia bat proiektatzen du kualitatiboki hautatutako lagin baten gainean, hala UPV/EHUri begira nola estatuko gainerako unibertsitateetako kasuak hautatzeari begira.

Txosten honetan ezinezkoa da gehiago sakontzea diagnostikoa bera aztertzen, baina jardunaldien esparruan aurkeztutako ondorio nagusiak bil daitezke.

UPV/EHUri dagokionez, aditzera ematen da bizefalia dagoela, eta estatus desberdina dutela lankidetzaren arloko bi eragile-rik garrantzitsuenak, hau da, alde batetik, Hegoa - Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua, eta, bestetik, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzarako Bulegoa. Horrez gain, UPV/EHUn nabaria da, sentsibilizazioko jarduerak alde batera utzita, beste esparru batzuetan egiten diren gainerako jarduerak ez direla berez Garapenerako Hezkuntzaren arlokoak. Hala gertatzen da master eta graduatu ondoko ikasketekin, garapen edo lankidetzari buruzko ikasgaiekin, praktiketako ikasleentzako prestakuntza-gune gisa diseinatuta dauden ikastaro monografikoekin, eta lankidetzako praktikekin ere bai. Hortaz, ezinezkoa da aztarna segitzea UPV/EHUn berezko politika zehatz bati, unibertsitateak zailtasunak baititu hari berez dagozkion jarduerak behar den tokian kokatzeko.

¹⁰ Juanjo Celoriok -EHUko Irakasleen Unibertsitate Eskolako irakaslea eta Hegoako Garapenerako Hezkuntzaren taldeko partaidea- aurkeztua.

¹¹ Urte horretan izan zen Garapenerako Hezkuntza unibertsitatean izeneko I. Biltzarra (hurrengo edizioetan izen hori galduko zuen, hortik aurrera era generikoan hasiko baitzen Unibertsitatea eta garapena deitzen).

Jarduera horiek eta beste batzuk aztertu ondoren, diagnostikoak zortzi ondorio biribil hauek ateratzen ditu:

1. Gaur egun, unibertsitatean, Garapenerako Hezkuntza anbigua da eta lausotu antzean dago. Normalean “sentsibilizazio” hitzari loturik egoten da, eta ez du profil argirik, gehienetan, Garapenerako Hezkuntzaren barruan izen horrekin esplizituki izendatzen den hori baizik ez baita sartzen.
2. Lankidetzari laguntza emateko tresna gisa agertzen da, haren menpean, eta, azken batean, lankidetzak da estatusa, sostengua eta onarpena dituen. Lankidetzak bera ahul samar dago orientabidean eta unibertsitateen praktika orokorrean; eta, horiek horrela, Garapenerako Hezkuntza lankidetzari sostengua ematen dion osagai bat besterik ez da.
3. Nagusi den ikuspegi instituzionalizatuan, Garapenerako Hezkuntzak ez du loturirik unibertsitateko irakaskuntza eta ikerkuntzarekin. Lankidetzari eta garapenari buruzko prestakuntza edota ikerkuntza bera ere ez da Garapenerako Hezkuntzatzat hartzen.
4. Garapenerako Hezkuntzak karga kritiko globala galtzen du. Jarrera anbigua eta lausotua duenez, ez da uste Garapenerako Hezkuntzak berezko diskurtsoa duenik. Gehien jota, prestakuntzako edo sentsibilizazioko teknika eta dinamika pedagogiko batzuk eskaintzen dituela uste da; eta dinamika edo teknika horiek ez daude unibertsitatezuzenduta, hezkuntzako beste maila batzuetara daude zuzenduta, edo gizarteko maila zabalago batera, hezkuntza ez-formalera. Karga kritikoa eta eraldatzailea

desagertzen da, eta, horrekin batera, alderdi zientifikoa eta kulturala ere bai.

5. Hortaz, unibertsitateko Garapenerako Hezkuntzak ez du loturirik ez-formala den edo unibertsitate aurrekoa den Garapenerako Hezkuntzaren erritmo eta bilakaera orokorrekin. Beste arlo batzuetan, 5. belaunaldiko Garapenerako Hezkuntzaz hitz egiten da, edo 6. belaunaldia ere aipatzen hasi da, Herritartasun Globalerako Hezkuntzatik harantz joz. Unibertsitateko Garapenerako Hezkuntzak, berriz, ez du loturirik, ez denborarik, Garapenerako Hezkuntzak beste arlo batzuetan pizten duen eztabaida sozialak, politikoak eta pedagogikoak berarengan eraginik izango ez balu bezala.
6. Bestalde, unibertsitatean oro har, edota unibertsitateko lankidetzako instituzioetan, ez du berezko kokapenik, ez instituzionalizaziorik. Aurreko guztiak sorrarazitako ondorio logikoa da hori. Garapenerako Hezkuntza zer den jakin gabe, eta lankidetzari bakarrik garrantzia aitortuz gero, ez da egitura politikorik, ez berezko baliabiderik behar; aski da zenbait ekintza egitea, normalean elkarrekiko lotura handirik ez duten ekintzak.
7. Iturri eta bultzada teorikoen eta praktikoen multzo bat behar da, Garapenerako Hezkuntzak unibertsitatean jokatzeko duen zeregina berriz kokatzeko, lankidetzak duen garrantzi bera aitortuta, edo gehiago. Izan ere, unibertsitateko praktika osoaren xedea profesionalei prestakuntza ematea, jakintzak ekoiztea eta gizarteratzea da. Garapenerako Hezkuntzaren arloan politika bat balego, unibertsitateak garapen, kultura eta hezkuntzarekiko duen erantzukizun

etikoa eta soziala nabarmendu liteke, eta azpimarra liteke gizartea bestelako garapen-ereduetarantz aldatzeko joka lezakeen zeregina, hain zuzen, eredu inklusibo eta demokratikoetara, parte-hartzea bultzatzen duten eta pertsona guztien -eta bereziki egoera ahulean dauden eta gizartean baztertuta geratzeko arrisku gehiago duten lagunen- eskubide ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalakiko begirunea erakusten duten ereduetarantz jotzeko.

8. Hortaz, Garapenerako Hezkuntzari buruzko ikuspegi zabala eta, aldi berean, egituratua eduki behar da. Ikuspegi zabala eta kritikoa, sentsibilizazioan, prestakuntzan, ikerkuntzan, eragin politiko eta sozialean, lankidetzan eta jakintzaren eskualdatzea bezalako esparruetan dituen ondorio guztiak berrikusi ahal izateko. Ikuspegi horrek, aldi berean, berreskuratu behar du unibertsitateko praktika osoari buruz duen ikuspegi zeharkakoa -eta, beraz, gai izan behar du mugak jartzeko, aurre egiteko eta hautabideak aurkezteko, merkaturatzeko ildo nagusiaren aurrean-; eta, horrenbestez, unibertsitateak giza garapen alternatiboa eta gizartearen jabekuntza bultzatzen dituen eragilea izan behar du, globalizazio neoliberallean azaltzen ari diren botereen aurrez aurre jarrita. Horrez gain, gai izan behar du bere burua egituratzeko eta instituzionalizatzeko, unibertsitate barruan baliabidez eta politikaz hornitzeko, horrela, legezkotasun gehiago izateko, eta unibertsitateko erkidegoan eta bere eguneroko zereginean eragina izateko.

Azken batean, Garapenerako Hezkuntzak etorkizuna eraiki behar du, eta *multibertsitatea*, zuzentasun inklusiboa... ere

bai. Izan ere, unibertsitateko Garapenerako Hezkuntza bere unerik gorenean egon ez arren, une interesgarri batean dago, dituen erronkei buruz hausnarketa egiteko, bere estatusa onartzeko, etorkizuna amesteko, eta beste unibertsitate-mota bat izateko zubiak eraikitzeko, lor daitekeen eta behar-beharrezkoa den beste unibertsitate bat.

2.2. Esperientzien aniztasuna Estatu espainiarrean. Eredu adore-emailea

Jardunaldietan, hainbat esperientzia aurkeztu ziren, estatuko hainbat unibertsitateko esperientziak; eta horiek unibertsitateko Garapenerako Hezkuntzak praktikan izan ditzakeen orientabide eta formatu ugarien erakusgarri dira.

Hala, mahaietako batean hiru esperientzia aurkeztu ziren: batean, generoa Garapenerako Hezkuntzari loturik aztertu zen, Begoña Leyra irakaslearen eskutik (UAM unibertsitateko Gizarte Laneko Unibertsitate Eskolakoa); beste batean, herritartasun globaletik garapen-arloko profesionalen prestakuntza landu zuen Jordi Perisek (Valentziako Unibertsitate Politeknikoko Garapen, Lankidetzeta eta Etikari buruzko Azterketa Taldekoa); eta, hirugarrenean, bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua landu zuen Mayte Hernándezek (Kordobako Unibertsitateko Lankidetzeta eta Elkartasun Arloko teknikaria)¹².

Leyrak unibertsitate eta lankidetzaren eta unibertsitate eta generoaren arteko harremanak berrikusten ditu, unibertsitateko lankidetzan eta Garapenerako Hezkuntzan generoaren

¹² Hitzaldi hauek esperientzien mahai-inguru batean daude sartuta. Hona hemen haien izenburuak: “Generoa Garapenerako Hezkuntzan. Unibertsitateak generoko zuzentasunaren alde egin dituen ekarpenei buruzko eztabaidak”; “Herritartasun globaletik garapen-arloko profesionalak prestatzea” eta “Bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua. Kordobako Unibertsitateko Garapenerako Hezkuntzan sartuta dagoen proiektu bat”.

ikuspegia sartzeak izan dezakeen esanahiarekin aurre-
ra egiteko.

Ikuspuntu horretatik prestakuntzaren alderdiak duen
garrantzia onartzen du, eta aditzera ematen du uniber-
tsitatearen ekintzako esparruan gora egin duela genero
aldeko berdintasunak. “Unibertsitateak mundu hobeago
bat izateko lagungarriak izan daitezkeen politikak sus-
tatu behar ditu, demokrazia benetakoa eta eraginkorra
aldeztu behar du, eta horrek guztiak generoko berdin-
tasuna eta era guztietako bereizkeria-moten aurkako
borroka ekarri behar ditu. Garapenerako Hezkuntzak
hori lortzeko erabili behar den tresna izan behar du”.

Hala ere, Garapenerako Hezkuntzak “generoko zehar-
kakotasuna” barne hartu arren, eta “unibertsitateak ga-
rapenerako lankidetzaz duen ikuspuntua ezinbestekoa
izan arren”, Leyraren ustez, “generoko ikuspegia ez dago
barne hartuta unibertsitateko laneko eta Garapenerako
Unibertsitateko Lankidetzak duen joera nagusian”. Hala,
beharrezkotzat jotzen du “prestakuntza, ikerkuntza, sen-
tsibilizazio eta hedapeneko jarduerak egitea, garapen-ar-
loko generoaren gaiari loturik”, eta “genero eta garape-
neko ikerkuntza sustatzea, era horretan Garapenerako
Hezkuntza ere indartzeko”.

Esparru horretatik, Leyrak GEDEA¹³ sarearen esperien-
tzia aurkezten du (Genero eta Garapeneko Baliabideak),
sare hori Genero eta Garapeneko Magisterraren bul-
tatzatzaile nagusia baita. Baliabide horien artean, hauek

nabarmentzen ditu bereziki: ikuspegi multidisziplinarioa,
azaltzen ari diren era askotako gaiekin duen harremana,
mugimendu feministarekin itunak egiteko eskaintzen
duen lekua, eta estrategia feministekin, garapeneko
ikasketekin, eta era askotako diziplinetara hedatzeko
generoko zeharkakotasuneko ikasketekin eratzen duen
elkargunea.

Esperientzien mahaiko bigarren hitzaldia GEDCE taldeak
aurkeztu du (Garapen, Lankidetzak eta Etikako Ikasketen
Taldeak)¹⁴. Garapenerako Prozesu eta Politikei buruzko
Masterrari egiten dio aipamen, baina aldaera hau txerta-
tzen du: “Garapeneko prozesu eta politiketako aditua”.
Esperientzia hori aurkezten da, dituen oinarriak azalduta:

- Hezkuntzako prozesua eta irakaskuntza kritikoa,
ekintzara zuzenduta; horrek zera esan nahi du:
masterraren edukietan teoria kritikoa oinarriak
onartzea, eta nagusi diren balioak berrikustea eta
aurkatzea; trebetasunak eta autoausnarketarako
prozesuak bultzatzea, nork bere epaiak izateko,
eta irakasle eta ikasleekin berrikuspen kritikoa
egiteko; ikuspegi eta ikuskeren aniztasuna,
norberak dituen itxaropenak, esperientziak, esa-
nahiak eta ikuskerak dekonstruitzeko eta berriz
eraikitzeko; eta praktiketan eta tesietan ekintza-
rako orientabideak ematea.
- Aski garrantzitsua den beste oinarri bat parte-hartzea
da. Ikuspegi horretatik, masterra bereziki zuzenduta

¹³ “GEDEA sarea informazioa emateko, trukatzeko
eta jakintza kudeatzeko eratu zen gune bat
da. Espainiako Lankidetzaren Garapen-arloko
Generoko Estrategiaren esparruan sortu
zen. Tresna honen bidez, eraginkortasun
gehiago lortu nahi zen garapenari buruzko
politikan berdintasuna txertatzeko orduan;
era berean, bide egokia izan zitekeen pobrezia
gutxitzeko eta genero delata-eta izaten den
bereizkeria ezabatuz. Horrez gain, baliabide
ona izan nahi du politikak harmonizatuz,
koordinatuz eta koherenteak izan daitezkeen
lortzeko, Espainiako lankidetzak eratzen duten
kideen artean. Era berean, lagungarria izan
daiteke nazioarteko ereduak bete daitezkeen, eta
Parisko Adierazpenean eta Akkrako Ekintzako
Agendan barne hartuta dauden laguntzaren
eraginkortasunerako oinarriak ezar daitezkeen”.
Bere web orrian agertzen den aurkezpenetik
ateratuko pasartea: [www.uam.es/ss/
Satellite/es/1242650698012/contenidoFinal/
Presentacion.htm](http://www.uam.es/ss/Satellite/es/1242650698012/contenidoFinal/Presentacion.htm)

¹⁴ Hitzaldi honek honako hauen sinadurak
dakartza: Jordi Peris, Alejandra Boni, Ivan
Cuesta eta Sergio Beldarenak. “Garapen,
Lankidetzak eta Etikari buruzko Ikasketen
Taldeak (GEDCE taldeak) jakintza-arloko aztertzen
dituen ikerkuntza-talde bat da, Valentziako
Unibertsitate Politeknikoko (UPV). 1995.
urtetik orain arte, UPVko Ingeniaritzako
Proiektuen Saileko irakasleek, ikertzaileek
eta teknikariek eratu dute talde hori.
Garapena, nazioarteko lankidetzak eta etika
aplikatuaren esparrura bideratzen dituzte haien
irakaskuntza, ikerkuntza eta hedapen soziala”.
GEDCE taldearen web orrian agertzen den
aurkezpenetik ateratuko pasartea:
www.upv.es/contenidos/GEDCE/

dago agentzia gune publikoan egitera, bizitzetan eragina izango duten alderdietan eta ekiteko moduak zabaltzen edo murrizten dituen instituzio-esparruan egitera. Horrez gain, oinarri horrek aukera ematen du jabekuntzarekin aurrera egiteko, gobernantzako instituzioko sistemen demokrazia-rekin areago sakontzeko. Eta diseinuan bertan du isla, eta landutako edukietan eta ikuspuntuetan, eta ebaluatzeko prozesuetan eta metodologietan ere bai.

- Garrantzia duen azken oinarria tokiko eta mundu-mailako harremanen eraikuntzari dagokio.

Master hau Garapenerako Hezkuntzako esperientziatzat jotzen da, arrazoi hauek aintzat hartuta: garapenaren praktika kritiko baterako prestakuntza ematen da, hezkuntzako prozesu kritiko bat ezartzen da, eta gaitasun bereziak sustatzen dira orientabide eraldatzailea lortzeko.

Horrez gain, unibertsitatearen eta lankidetzaren esparruan aurkitutako zailtasun eta sostengu guztiak berrikusten dira. Lehenengoen artean, testuinguruak berak dituen zailtasunak nabarmentzen dira. Hala, bada, oso esanguratsua da egiaztatzea egituretan dauden inertziak, instituzioen hezkuntzako kultura bera, edota itxaropenen eta eskarien aniztasuna azal dadin murrizten duten botereko harremanak eta titulazio aldetik dagoen desabantaila. Lankidetzaren arloan, lankidetzako politiketan nagusi den orientabide gerentzialista eta burokratikoarekin egiten du topo, eta, era berean, garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen munduak berak duen ahultasuna, eta dauden tentsioak sumatzen ditu, prestakuntza

tekniko eta akademikoaren eta orientabide kritiko, engaiatu eta eraldatzailearen artean dauden tentsioak.

Baina, horren ondoan, bestelako alderdiak ere aipatzen ditu: laguntzak eta aukerak, hala nola, GEDCE talde sustatzaileak berak duen autonomiaren ondoriozkoak, ikasleen eta kanpoko irakasleen hezkuntzako kultura alternatiboa, ikaskuntza kritikoak duen erakarpina, eta masterraren sorrera eta diseinua bera. Bestalde, lankidetzaren testuinguruak hainbat alderdi errazten ditu, esate baterako, finantziarioa, presioa eta unibertsitatearekiko lotura, kanpoko eragile kritikoekiko eta erakundeekiko lotura, eta, orobat, unibertsitatekanpoko irakasleekiko lankidetzak.

Hirugarrenik, Garapenerako Hezkuntzako proiektu bat aurkezten da, Kordobako Unibertsitateko kidea den Mayte Hernándezek azaldu zuen “Bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua” gaitik abiatuta txertatutakoa.

“Garapen txarra” kontzeptua eta Kordobako Unibertsitateko 2006-2015 Plan Estrategikoan bildutako proposamenak hartzen dira abiaburutzat. Hortik aurrera, “Kordobako Unibertsitateko Kontsumo Arduratsuko eta Bidezko Merkataritzako Ekintza Plana” kokatzen da, eta argi azaltzen da lau alderditan nola islatzen den, hain zuzen, sentsibilizazio, prestakuntza, ikerkuntza eta eragin politikoa izenezko alderdietan. Horren ondoren, erronkak eta itxaropenak azaltzen dira amaiera gisa.

Gaizki garatuta dagoen munduari buruzko ikuskera abiaburutzat hartuta, Giza Garapenaren Indizearen eta iraunkortasunaren

ikuspegitik, elkarri lotuta dauden arazoen zuhaitz bat eratzen da. Zuhaitzaren sustraietan, kontsumoaren kultura eta eragile ekonomikoen boterea daude. Ikuspegi hori UCO unibertsitatearen Plan Estrategikoarekin erkatzen da, plan horretan bi ardatz garrantzitsu azpimarratzen baitira. Alde batetik, osoko prestakuntzaren ardatza dago, eta, horren barruan, balioetan oinarritutako hezkuntza, eta pentsamendu kritikoa sustatzeko xedea. Eta, bestetik, nazioartekotze eta konpromiso sozialaren ardatza dago, eta horrek unibertsitatearen proiektio soziala nabarmentzen du ildo gisa, eta Kordobako Unibertsitateak duen eginkizuna, berriz, gizartea eraldatzeko motor modura.

Esparru horretatik, berriz aztertzen dira unibertsitateko ekin-tzak izan ditzakeen aukerak, prestakuntza, ikerkuntza, sentsibilizazio eta eragin politikoaren estrategia klasikoaren eta nagusi den ildo sozial eta akademikoan oinarrituta dauden joera ezkorren arteko gurutzaketari dagokionez; eta horiek, zehazki, hauek dira: ezjakintasuna, eszeptizismoa eta ezintasuna.

Gurutzaketa horretatik sortzen diren joerak Ekintza Planak berak jasoko ditu gero. Hala, ikerkuntzatik bi ildo sortzen dira, garapen txarraren arazoak aztertzeko, eta proposamenak eta hautabideak aztertzeko eta oinarritzeko. Prestakuntza aldetik, beharrezkotzat jotzen da jakintza hori irakastea eta hedatzea eta, era berean, baliozko esperientzia eta hautabideetatik abiatuta prestakuntza sustatzea. Sentsibilizazioaren ikuspegitik, proposamena egiten da esperientzia horiek zabaltzeko eta ezagutzera emateko, eta erabaki politikoetan eragina izateko dinamikak sortzeko borondatea izatea ere

bai. Azkenik, gizarteko mobilizazio eta eraginaren ikuspegitik, kudeaketa iraunkorreko hautabideak saiatzeko eta praktikan jartzea proposatzen da, bai eta instituzioen esparrua eraldatzeko eragina indartzea ere.

Gero, txostenak zehatz ikustarazten eta berrikusten du osagaien multzo hori nola joaten den Ekintza Planean gorpuzten, eta nola eragiten dioten elkarri hainbat ekimenek, prozesu integratua eta irekia sorrarazi arte. Ikerketan “Andaluziako Bidezko Merkataritzaren Egoerari buruzko 2010. urteko Txostena” egiteaz gain, ikerketak berak, alde batetik, gaiaren egoeraren berri ematen du, eta, bestetik, arrakasta izan duten zenbait esperientzia azaltzen ditu, eta, gainera, hausnarketa egiteko esparru bat sortu eta egin daitezkeen berrikuntzak iradokitzen ditu. Horren guztiaren ondorioz, sentsibilizazioko jarduera eta prestakuntzako ikastaro ugari eskaintzen zaizkie unibertsitateko hainbat sektoreri, kudeaketa arduratsuko prozesuak sortzen dira, eta itunak egiten dira bidezko merkataritzako eta kontsumo arduratsuko erakundeekin.

2.3. Ekuador eta Mexikoko adiskideen txostenak, erkatzeko eta ikasteko esperientzia gisa

Bi bilera eskaini ziren Atlantikoaz bestaldetik heldutako bi txosten azaltzeko. Lehenengo txostena Ekuadorreko Kultura arteko Hezkuntza Sistema Elebidunari buruzkoa zen (EIB), eta, bereziki, Ekuadorreko Amazonia zuen ardatz gisa, UPV/EHUK lankidetzaren eta elkarlanean aritzeko tradizio luzea baitu hezkuntza-sistema horrekin¹⁵. Bigarren bileran, zeharkakotasunaren arloko

¹⁵ Vitoria-Gasteizko Irakasle Eskolak lankidetzan aritzeko tradizioa du 2000. urtetik hona. Lehenengo aldian, ikasleek lankidetzako praktikak egiten dituzte Pastaza eskualdeko eskoletan eta erkidegoetan, hau da, Ekuadorreko Amazoniaren bihotzean. Bertan, zazpi naziotasunetako kideak bizi dira batera: kitxua, shuar, achuar, shiwiar, huaorani, zaparo eta andoa izeneko naziotasunak.

esperientzia bat azaldu zen, Mexikoko Meritu Oneko Maisu-maistren Eskola Nazionalean (BENM) egindako irakasleen hasierako prestakuntzari buruzkoa.

Pastaza eskualdeko Kultura arteko Hezkuntza Elebiduneko Eskualdeko Zuzendaritzako aholkulari teknikoa den Jacob Aguinda Canelosko Institutu Pedagogikoko errektorea izan zen. Zentro hori maisu-maistren hasierako prestakuntzaz arduratzen da, Kultura arteko Hezkuntza Sistema Elebidunaren esparru jomugatzat hartuta.

Txostenaren bidez, Atlantikoaz bestaldeko egoerari buruzko ikuskera bat emateaz gain, argi islatu nahi zen Garapenerako Hezkuntza -kultura arteko alderdi bat duenez- berezko hezkuntza-sistema bat izan daitekeela -sistema hispanoaren paraleloan jarria-, Ekuadorreko herri eta naziotasun indigenen berezko hizkuntzak eta kulturak berreskuratzeko jardueran aritzeko. Hortaz, hezkuntzako sistema publiko horrek garapenerako eredu alternatibo bat sustatu nahi du, nagusi den eredia ez bezalakoa, *sumak kawsay* (elkarrekin ondo bizitzea) deitutakoaren ereduetan oinarritua. Era horretan, jardunaldiak antolatu zituen taldearen ikuspuntuak bestelako begirada bat eskaini nahi zuen, erkidegoko tradizioa zuen, Pachamaman txertatuta zegoen eta pertsona eta erkidego indigenei jabeak emateko asmoa zuen hezkuntzako praktika batetik abiatuta.

1988. urtean sortu zenetik Kultura arteko Hezkuntza Elebiduna gidatzen duten oinarriak biltzen ditu txostenak, eta zein arazori eman nahi dion erantzuna susma dezakegu. Besteak beste, arazo hauei:

- Kultura arteko Hezkuntza Elebidunaren azpisistema eta modalitate bakoitzerako egokia den curriculum on bat garatzea.
- Herritar indigenen beharrezanekin bat datozen hezkuntzako modalitateak diseinatzea.
- Material didaktikoen ekoizpena eta erabilera sustatzea, egokiak diren hizkuntza-irizpide, eta irizpide pedagogiko eta sozialekin bat etorrira.
- Kultura arteko Hezkuntza Elebiduna planifikatzea, zuzentzea eta betearaztea, Ekuadorreko naziotasun indigenen erakundeekin batera arituta.
- Kultura arteko Hezkuntza Sistema Elebidunaren curriculum diseinatzea, garatzea, ezartzea eta ebaluatzea.
- Irakasleak eta oinarriko baliabideak prestatzea eta jartzea, herrialdeko leku guztietan Kultura arteko Hezkuntza Elebiduna eskaini ahal izateko.

Jacobek argi azaldu zigun zer dela-eta den beharrekoa berezko hezkuntza izatea, herri eta naziotasunek berek beraiantzat egindako hezkuntza. Hain zuzen, herri edo naziotasun gisa ikusgai azaldu ahal izateko, memoria historikoa berreraikitze eta berreskuratzeko, isildutako hitza entzunarazteko, kultura artekotasunaren praktikari laguntza emateko beren nortasun eta autoestimutik abiatuta, kontrolaz eta bizimoduez jabetzeko, eta kulturari eusteko edota areago indartzeko, deskolonizazio mentala lortzeko prozesua abian jartzeko, pertsona bakoitzak

dituen barne-barneko sentimenduak adierazi ahal izateko, giza eskubideen eta herri eta naziotasunen talde-eskubideen erabilera sustatzeko, eta *sumak kawsay* izeneko indartzeko.

Nahien sare konplexu horretan, sistemak laguntza eman nahi du naziotasun askotako estatu bat eraikitzeko, kultura arteko gizartean oinarrituta, eta, orobat, antzinako jakiturian, Ekuadorreko aniztasun biologikoan, eta munduko hainbat kulturatako ekarpenetan oinarri hartuta. Era berean, kulturako nortasuna eta herri eta naziotasun indigenen nortasuna indartu nahi ditu, eta laguntza eman nahi du herri eta naziotasunen bizitza-kalitaterako baldintza hobekak lortzeko.

Oinarri eta helburu horietatik abiatuta, Kultura arteko Hezkuntza Elebidunaren aldi eta modalitateen formatua berrikusten da. Txostena gaingiroki aurkeztu ondoren, Kultura arteko Hezkuntza Elebidunaren egoerarik berariazkoena ikertzen da, Ekuadorreko Pastaza eskualdeko kasua adibidetzat hartuta, txostengilearen ustez kasu horrek hainbat bereizgarri baititu¹⁶.

Txostenak azaltzen duenez, sistemaren abiaburuan, izaki berria sortu aurreko hezkuntza-jarduera bat dago (“bikotearen prestakuntzatik”), hasieratik bertatik neskak eta mutilak erkidegoaren esparruan txertatu ahal izateko. Erkidegoko Haur Hezkuntza Familiarrean (EIFC) sartuta dagoen prozesu bat da, zenbait unitatetan egituratuta dago (urte desberdinei dagozkien unitateetan), eta gai hauek aztertzen ditu arian-arian: oinarrizko trebetasunen garapena, alfabetizazioa bi hizkuntzetan, ikasteko tekniken garapena, eta, azkenik, teknologia emankorren tratamendua eta lanbide-arloko orientabidea (azken hau hautazkoa da). Prozesua unibertsitate-mailaraino txertatu behar da.

Txostenean nabarmentzen denez, ezinbestekoa da nork bere unibertsitatea izatea, eta unibertsitate hori gai izatea, jakintzak, titulazioak, Kultura arteko Hezkuntza Elebidunerako profesionalak eta bestelako profesionalak sortzeko, era horretan, erkidegoak gara daitezten. Eta hori hala da, nahiz eta “Cuencako Unibertsitatearekin eta beste unibertsitate batzuekin harremanetan egonik, 1991. urtetik hona, profesional indigenak prestatu diren hainbat arlotan: pedagogian, hizkuntzalaritzan, ikerkuntzan, kudeaketa publikoan eta natura-baliabideetan, hala graduatu aurreko nola graduatu ondoko ikasketetan”.

Goi-mailako hezkuntzako instituzio bat behar da, profesionalak prestatzeko, eta antzinako jakintzak eta ekoizpen zientifiko eta teknologikoaren jakintzak harremanetan jartzeko, jabeakuntzaren bidez, erkidegoei zerbitzu eginez, herrien berezko eskubideak bultzatuz eta baldintza berriak sortuz. Balioespenen arabera, era horretan baizik ezin izango da sortu globalizazio neoliberalaren eta bere eragile eta dinamiken erasoei aurre egiteko gauza izango den sistema. Diskurtsoa egin bitartean eta horren ondoko galderen txandetan, era honetako gaiak sortzen dira: Kultura artekotasuna, norberaren hezkuntza-eredua, *sumak kawsay* izenekoaren proposameneko harremana, edota ikerkuntzaren eta zientziaren zeregina.

Hala ere, zenbait gabezia antzematen dira mota horretako unibertsitatea (edo, han esaten dutenez, multibertsitatea) eraiki ahal izateko, herri horiek dituzten interesak eta beharrik beteko dituzten profesionalak sustatu ahal izateko. *Sumak kawsay* izeneko lortzeko hezkuntzak goi-mailako prestakuntza eta ikerkuntza behar ditu, eta eragin soziala eta

¹⁶ Aipatzen denaren arabera, 2005. urtetik aurrera, Amazoniako naziotasun indigenek Amazoniarako Kultura arteko Hezkuntza Elebidunaren Eredua prestatu zuten (AMEIBA). Eredu horretan finkatu zenez, irakaskuntzako unitateen arabera antolatuko zuten hezkuntza, eskolako urteen arabera antolatu beharrean.

politikoa, eta erkidegoekiko konpromisoa ere bai. Hori guztia egin gabe dagoen erronka bat da oraindik, eta premiazkoa eta beharrezkoa da Kultura arteko Hezkuntza Elebidunean.

Atlantikoaz bestaldeko adiskideek eman zuten bigarren hitzaldia Mexikotik iritsi zen, zehazki, Lehen Hezkuntzako irakasleen hasierako prestakuntzarako zentro batetik¹⁷. Hitzaldi horretan, oso ekarpen interesgarria egiten da zeharkakotasunaren egin-kizunari buruz, eta praktika pedagogikoan jakintza eta diskurtsoaren zentzu soziala eta politikoa berreskuratzeak duen garrantziari buruz.

Lehenenik eta behin aipatu behar da txostena taldeko lan baten emaitza dela, zehazki, praktika profesional batean sartuta dauden eta hogeitortetik gorako ibilbidea egin duten profesionalen talde-lanaren emaitza¹⁸. Bigarrenik, txostenak bere ondorio eta esanahien testuinguruan kokatzen du zeharkakotasuna, arlo akademiko eta pedagogikotik harantz joz. Hala, “zeharkakotasunak gizarteko arazoei egiten die aipamena, mundu-planeta honetako arazo horiek izaki bizidun guztiengan baitute eragina, gauden tokiaren latitudea eta luzera edozein direlarik ere, izaera globalizatzaile eta neoliberalaren ondorioz. Zeharkakotasuna adierazten da Latinoamerikako goi-mailako hezkuntzako langileak garen aldetik, eta, bereziki, Mexikotik [...] Mexiko herrialde plurikulturala, multikulturala eta/edo interkulturala da; bertan, 60 talde indigena baino gehiago bizi dira elkarrekin, nork bere hizkuntza, tradizio, mundu-ikuskerak eta praktikekin. Talde horiek ez dira diskurtso hegemonikoen azpian desagertuko edo eroriko [...]; aitzitik, onarpen osoa eskatzen dute, estatu-nazioaren esparruan ugaltu eta garatu

ahal izateko [...] Neoliberalismoaren eta kapital globalizatuaren joera gizartearen indibidualizazioa ahalik eta gehien sustatzea da, eta horri guk eman diezaiokegun erantzun bideragarri eta itxaropentsu bakarra hau da: erkidegoa ahalik eta gehien eraikitze dagoen beharra azpimarratzea¹⁹”.

Hortik aurrera, zenbait galdera egiten dituzte, horrek jakintzaren esparruan izan litzakeen ondorioei buruz, eta esparru espezializatuak eta zatikatuak dituen zientzia neutral, objektibo eta mugatuaren amets positibista eta unibertsalistaren xedeari buruz. “Ez da aski kezka hartzea ingurumenaren suntsipenaz; horrez gain adierazi behar da subjektu eta industria batzuk horren bidez aberasten direla, eta horiek guztiek izena eta naziotasuna dituztela, legeak urratzen dituztela, konplizeak dituztela, gobernatzaileak usteltzen dituztela eta gezurrak saltzen dizkigutela”. Hortaz, zeharkakotasuna eskaera gisa sortzen da, mundua ulertzeko eta, bereziki, mundua eraldatu ahal izateko eskaera gisa.

Ikuspegi horretatik, zeharkakotasunaren esperientzia BENM zentroko irakasleen hasierako prestakuntzan dago, hortik abiatzen baita, laurogeita hamarrek hamarkadaren erdialdean, ikerkuntza-ekintzari lotutako ikuspuntuak dituen esperientzia hori. Praktika historiko bat, saiakeren prozesu bat, nagusi diren praktikei eta diskurtsoei aurre egiteko eta bere legezkoatasuna handituko duten prestakuntza berritzaileen prozesua. José Alfredo Gálvezek zioen moduan, “gure lanean egin ditugun aldaketen abiaburuan, hau da: zorrotasun teoriko askatzailea, irakaskuntza eraldatzeko argitasun metodologikoa, eta eskola publikoarekiko eta hark ordezkatzeko

¹⁷ Izenburua hau da: “Experiencias pedagógicas sobre transversalidad en el Currículo”. Mexikoko Meritu Oneko Maisu-maistren Eskola Nazionalaren (BENM) praktika pedagogikoaren barruan kokatu behar da.

¹⁸ José Alfredo Gálvez, Consuelo Yáñez eta Martín Lucero, Ekintza Pedagogikorako Elkarre Akademiako kide diren hiru egile.


¹⁹ Hitzaldiko laburpen hautatuak. Hemen daude eskuragarri: http://pdf2.hegoa.efaber.net/entry/content/1069/jose_Alfredo_Mexico.pdf

dituen balioekiko konpromiso etikoa. Eta, horrekin batera, zeharkakotasuna, hau da, gure praktikak antolatzen dituen erreferente nagusia”.


Prozesu horren ondorioz, Ekintza Pedagogikorako Talde Akademikoa sortu da. Talde hori sendotuz joan da eta, aldi berean, prozesuaren sustatzailea izan da, ikastaro eta espezialitate askotako irakasleak bildu baititu, “ikasleei zeharkako paradigman sartzeko aukera ematen dieten testuak partekatuz”, “baterako jardueretan parte hartuz, adibidez, hitzaldietan, tailerretan, erakusketa pedagogikoetan eta beste eskola arrunt batzuekin egindako trukeetan [...] eta, aldian behin, azaltzen ari diren pedagogiei buruzko biltzarrak antolatuz.” Prozesua hedatuz doa, eta gero eta konplexuagoa da. Era horretan, sistema bat joan da ehuntzen, gero eta erakargarriagoak baina, aldi berean, zailtasunak ere badituzten sare eta dinamikekin. Hala ere, azkenean, honela bukatzen du: “lan egiteko modu horrek ematen duen ikuskeraren arabera, gizartea egituratuta dagoen osotasun bat da, eta jakintza, berriz, eraldatzeko gailu bat da; horrenbestez, nabarmena da jakintzak ez direla neutralak, gertaera sozialei buruzko azalpen interesatuak baitaude tartean”.

Atlantikoaz bestaldeko adiskideek egindako ekarpenek agerian uzten dituzte mahai gainean geure errealitateari ere badagozkion zenbait auzi: zeharkakotasunaren gaia, gi-

zartratze kritikoan hezkuntzak betetzen duen eginkizuna, jakintzaren zentzu, esanahi eta zeregin askatzailea, alde teorikoaren eta praktikoaren arteko harremanak, antzinako jakintzen eta jakintza “zientifikoaren” arazoa, pedagogia kritiko, eraldatzaile eta engaiatuaren arazoa, profesionalen erantzukizunak eta etikaren eginkizuna, eta praktika profesionalaren erantzukizun soziala. Horretaz guztiaz hausnarketa egiten jarraitu beharko dugu etorkizunean.



**3. Parte hartzeko eta eztabaidatzeko guneak. Garapenerako Hezkuntza eraikitzen.
Ikuspegiak, tresnak eta estrategiak**



Lehen esan bezala, eztabaidan parte hartu eta jardunaldietako gaiei buruzko proposamenak egin zituen jendeari parte-hartzea errazteko bereziki prestatu ziren guneetako bat lan-taldeak izan ziren. Hala, lan-taldeen bi unetan lan egin zuten, eta bi kontsigna desberdin eduki zituzten.

Lehenengo egunean, lau lan-talde eratu ziren aldi berean. Talde horietako bakoitzak hausnarketa egin behar zuen Garapenerako Hezkuntzak dituen estratergiei buruz -sentsibilizazio, eragin politiko, gizarteko mobilizazio, prestakuntza eta irakaskuntza eta ikerkuntzari buruz-, eta zeharkakotasunari buruz -genero, kultura artekotasun, bake eta giza eskubide, eta iraunkortasunari buruz-, oinarri horrek izan behar baitu hezkuntzako ikuspuntu honen azpian jasota dauden ekintzen burua.

Bigarren egunean, lau lan-taldeen Garapenerako Hezkuntzan etorkizunari begira jarduteko ildo estratergiekoak identifikatu eta zehaztu zituzten, lehen aipatutako atal horietako bakoitzean.

Garrantzizkoa iruditzen zaigu parte hartzeko gune horiek izan zuten emaitza barne hartzea, hor nabarmen agertzen baitira, hala oraingo erronkak, jakintza kritiko eta eraldatzailearekin engaiatutako unibertsitate bat eraikitzeke apustuari dagokionez, nola hezkuntzako erkidegoak asmo horrekin bat egin dezaten eta engaiatu dadin lagungarriak izan daitezkeen ekintzak.

Aipatutako Garapenerako Hezkuntzako estratergia guztiek batera dituzten proposamen batzuen arabera, ezinbestekoa da zeharkakotasuna ekintza guztietan barne hartzea, irakaskuntzako,

ikerkuntzako eta gizarte-proiektzioeko ekintzetan; sareak eta itunak bultzatu behar dira unibertsitatearen eta gizartearen arteko lotura indartzeko era askotako eragileen artean; Garapenerako Hezkuntzari balio akademikoa eman behar zaio, ikusezina izan ez dadin edo bazterrekotzat jo ez dadin, hau da, aintzakotzat hartu behar da hezkuntza kritiko eta eraldatzailearen esparruan egiten ari den lan guztia.

3.1. Sentsibilizatzeko estratergiari buruz

Sentsibilizazioa da unibertsitateko esparruan gehien agertzen den estratergieetako bat. Lan-taldeen honako hauek nabarmendu zituzten, ekiteko egon daitezkeen ildoen artean:

Itun estratergiekoak egin behar dira unibertsitatearen barruan, irakasleen eta unibertsitateko beste eragile batzuen artean, eta unibertsitatearen eta gizarte zibilaren artean, batez ere, errealitateari buruzko eztabaidak pizten dituzten irakurketak egin ditzaketan eragile kritikoekin. Ildo estratergieko horri dagokionez, beharrekotzat jotzen da unibertsitatea kalera ateratzea, beste gizarte-eragile bat izan dadin, gune ireki, irisgarri eta hurbil bat izan dadin herritarrentzat; eta, horretarako, gizarte zibiletik eta gizarte zibilarentzat lan egin behar da.

Proposamenen beste ildo batek lotura du ikasleek sentsibilizazioeko ekintzetan duten inplikazioarekin, eta lan-taldeak, eta ikasleek eta irakasleek batera ekin dezaten plataformak sortzearekin. Inplikazio hori errebeldian hezteko xedea duen proposamen pedagogiko baten ondorioa izan daiteke,

errebeldia zera dela kontuan izanik: nagusi den ereduak babesten duen otzantze sozialari aurre egiteko oinarria.

Azken ildo estrategikoak sentsibilizazioaren formatuak eta edukiak aipatzen ditu, eta, estrategia klasikoak alde batera utzi gabe, bereziki azpimarratzen du beste estrategia batzuk sortu behar direla, gure lanaren eragina handitu ahal izateko. Era horretan, berrikuntza eta sormena funtsezko baliabideak dira. Ideia horiei euste aldera, komunikazio eta publizitatearen munduarekin zubiak egiteko aukera iradokitzen da, baina, betiere, komunikatzen dugunari buruzko hausnarketa bat eginez, hartara, hausnarketa horren bidez, zehaztu ahal izan ditzagun kontzientzia kritikoa sortzeko neuririk eta edukirik egokienak.

3.2. Prestakuntza eta irakaskuntzako estrategiari buruz

Prestakuntza eta irakaskuntza dira Garapenerako Hezkuntzak dituen estrategia nagusiak, tresna egokiak baitira jakintza kritikoa sortzeko, eta prozesu onak ere bai, edozein jakintza-motatako etorkizuneko profesionalak beren lanbidean aritu daitezen lortzeko, betiere, elkartasunarekin eta justizia sozialarekin engaiatuta dauden eta etikoak diren hatsapenetatik abiatuta.

Esparru horretan zehaztutako ildo estrategikoetako batek irakaskuntza eta prestakuntzako jardura guztietan zehar, jakotasuna sartzeko aukera aipatzen du -generoa, kultura

artekotasuna, giza eskubideak, iraunkortasuna...-, tresna egokia izan baitaiteke hori, begirada kritikoa ager daitezen, jakintzen edukiak ikertzeko, eta, orobat, ikaskuntza-irakaskuntzako estrategiak berak eta, oro har, unibertsitateko jardura osoa aztertzeko.

Ildo estrategikoen beste multzo handi baten arabera, sareak eta itunak egin behar dira, eta sinergiak baliatu behar dira, hala beste erakunde batzuekin -unibertsitate barruan eta kanpoan-, nola Garapenerako Hezkuntzako diskurtso bera duten guztietan. Proposamen horri loturik, irakaskuntzako trukeak bultzatu behar dira, beste leku batzuetan egiten ari diren ekimenetatik ikasi ahal izateko.

Horrez gain, interesgarritzat jotzen da unibertsitatea harremanetan jar dadin Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeekin, era horretan, Garapenerako Hezkuntzaren arloan egin den lanak jarraipena izango duela bermatzeko, eta, horrenbestez, hezkuntzako aldi guztietan egon dadin lortzeko. Proposamen zehatz hori bereziki garrantzitsua da unibertsitate jakin batzuentzat, hain zuzen, Garapenerako Hezkuntzako lanean aritzeko lehentasunezkoztat jotzen diren horientzat, adibidez, irakasleen eskolentzat eta pedagogiako fakultateentzat.

Hona hemen gauzatzeko moduko lan proposamen bat, etorkizunean sendotu beharko dena: unibertsitateko sistemak berak eskaintzen dituen aukera guztiak baliatzea, ikastaroak, prestakuntza eta mintegiak sustatzeko, eta unibertsitateko irakasleekin hezkuntzari buruz eztabaidatzeko guneak indartzeko. Bultzada ematen da graduako prestakuntzan barne

hartzen diren 6 ECTS sistemetan -egindako ikasketa-planeko osagai gisa onartutako horietan- Garapenerako Hezkuntzako edukiak sartzeko.

Azkenik, beste lan-ildo bat iradokitzen da, ikasgelan hausnartzeko guneak sortzeko prestatua, hain zuzen, jarrera irekiagoa eta askotarikoagoa duen, eta jakintzaren bestelako moldeak ikustarazten dituen lan-ildo bat. Lan-ildo horrek indartuko gaitu, nagusi diren beste jarrera dogmatikoago batzuk kritikatzekoan.

3.3. Ikerkuntzako estrategiari buruz

Ikerkuntza da unibertsitateko zereginari zentzua ematen dion beste eginkizunetako bat, eta bereziki garrantzitsua da Garapenerako Hezkuntzari begira. Honen moduko ikuspuntu batek, hau da errealitatean ainguratuta dagoen ikuspuntu batek, ikerkuntza behar du, errealitateari buruzko azterketak eta interpretazioak gaurkotzeko eta erkatzeko, eta, orobat, gizarte zibilak arazoei aurre egiteko dituen moldeak eta eraldatzeko iradokitzen dituen bideak zehazteko. Era berean, beharrezkoa da, Garapenerako Hezkuntzaren ikuspegitik ezarritako hezkuntza-prozesuei buruzko informazioa jasotzeko.

Jardunaldietan parte hartu duen taldeak babesten duen lehenengo auzia da behin eta berriz azpimarratu behar dugula unibertsitateak gizarteko garrantzia duen ikerkuntzari egin ahal dion ekarpena. Horrekin batera, bereziki nabarmendu behar da horren ondorioz sortutako jakintza partekatu behar

dela eta irekia izan behar duela. Hargatik, ildo horri lotuta, oroz gain nabarmentzen da jakintzaren eskualdatze sozialarekin batera eragina izateko lan egin behar dela, era horretan, ikerketa-lanari balio akademikoa emateko erreferentzia gisa baliatzen diren “kalitateko indizeek” esparru sozialean egiten duten ekarpena kontuan har dezaten.

Garapenerako Hezkuntzaren oinarriekin bat etorrita, ildo estrategiko garrantzitsu bati jarraiki, gizartearen kezka pizten duten gaiak eta, oro har, gaur egungo arazoak aztertzen dituzten ikertzaileak sustatu behar dira, eraldatzeko duten indarra aintzat hartuta.

Beste ildo propositibo baten arabera, ikerkuntzako metodologiak berraztertu behar dira, Garapenerako Hezkuntzako ikuspegiekin bat egin dezaten. Hala, beraz, parte hartzea bultzatzen duen ikerkuntza-mota bat behar da, sexista ez den eta etnozentrikoa ez den ikerkuntza, tartean sartuta dauden taldeek eta subjektuek emaitzak itzul ditzaten aintzat hartzen duena, era askotako jakintza-moldeetara zabalik dagoena, tokiko jakintza berreskuratuko duena, ingurumenean izan daitezkeen eraginez kezka hartuko duena...

Alabaina, metodologietatik harantz joz, beste ildo batek ondo zehaztu behar du zein diren ikerketa batek bete behar dituen gutxieneko irizpideak, ikuspegi eraldatzailea duen ikerkuntzat hartu ahal izateko. Irizpide horietako batzuk hauek izan daitezke: begirada kritikoa, jarrera etikoa, praktika azpimarratzeko gaitasuna, ikerketetan subjektuek duten zeregin aktiboa -jabetzeko eta jabetzako prozesuak indartuz-, eta

zeharkako ikuspegiak barne hartzea, hala nola, generoa, ingurumenaren iraunkortasuna, giza eskubideak, etab. Horiek guztiak ezinbesteko osagaitzat hartzen dira, hezkuntzako ikuspegia eta gizarteko eragina duen eta guztiz desberdina den ikerkuntza bat egiteko: ikerkuntza askatzaile, kritiko eta alternatibo bat egiteko. Asmo horri begira, lagungarria izan daiteke beste arlo batzuetan baliatzen den esperientzia eta informazio osoa jasotzea.

Garapenerako Hezkuntzako onarpen akademikoa eskuratzea ildo estrategiko garrantzitsu bat da. Hala, bada, instituzioen sorta zabal batean eragina izatea proposatzen da, bai ikerkuntzaren kalitatea ebaluatzen duten horietan (ANECA agenzian), bai Ikerketa + Garapenaren arloko lan-ildoak sustatzen dituzten horietan, bai lanak egiteko diru-laguntzen politikak finkatzen dituzten horietan.

Aski estrategikoa den beste ildo baten arabera, Garapenerako Hezkuntzako ikuspegia duten ikerkuntzak sustatzen eta dinamizatzen dituzten eta, aldi berean, ikertzaileei estaldura eskaintzen dieten unibertsitateko egiturak indartu behar dira. Horren adibide gisa, horra hor institutuak, ikerkuntzako taldeak, UFI, etab.

Azkenik, beste ildo estrategiko bat azaltzen da, hain zuzen, lan-tzen ari den guztia ezagutzera emateko lanari dagokiona. Izan ere, ildo horrek ez du beti beharko lukeen onarpena jasotzen, ez unibertsitateko erkidegoan, ez eta oro har jendartean ere. Horri dagokionez, garrantzi berezia hartzen dute jarduera batzuek: aldizkarietan -espezializatuetan, akademikoetan, bai eta

zabalkundekoetan ere- argitaratzeko, biltzarretara txostenak bidaltzeko, eta elkartzeko eta eztabaidatzeko gune guztietara joateko jarduerak. Azken batean, ikerketako ildoak eta haien emaitzak eman behar dira aditzera.

3.4. Eragin politiko eta gizarteko mobilizazioko estrategiari buruz

Jardunaldietan eztabaidatutako azken estrategia eragin politikoari eta gizarteko mobilizazioari buruzkoa da. Garapenerako Hezkuntzaren estrategia da, horrek tradizio gutxiago baitu lan-arloan, eta, beraz, ahulago agertzen baita unibertsitateko esparruan. Hala ere, zeregin funtsezkoa du, Garapenerako Hezkuntza unibertsitateko zereginetan txertatzeko lagungarriak izan daitezkeen politikak zehaztu ahal izateko. Horretarako, arlo honetako ildo estrategikoak honetara zuzendu behar dira:

Unibertsitateak eraldatzeko eragile gisa bete behar duen egin-kizuna aldarrikatu behar dute, joera merkaturatzaileen aurrez aurre jarrita. Horrekin batera, eta indargarri gisa, bestelako irizpideak sartu behar dira “bikaintasuna” balioztatzeko parametroen barruan, hain zuzen, erabat akademikoak diren baliorez gain bestelako alderdiak kontuan izaten dituzten horiek.

Sare horizontalagoak sortu behar dira, hor elkarlanean aritzeko eta elkarri eragin ahal izateko, eta gaitasuna izateko eragin politiko edukitzeko eta gizarte-mobilizazioko ekintzak egiteko. Kontua da unibertsitatean nagusi den ikuspegia gainditzea, hau da, gizarteko eragileekiko eta garapenerako gobernu kanpoko

erakundeekiko lankidetza batere eraldatzailea ez den ikuspegi estruktibo batetik behatzen duen ikuspegia gainditzea. Era berean, gizarteko eragileak akuilatu behar dira, unibertsitatean egon daitekeen indar guztiaz balia daitezten. Azken batean, kontua da honelako ideiak batzea: jakintzaren baterako ekoizpena eta baterako ekintza koordinatua, itunak eta sareak orokortzea, hala unibertsitate barruan nola kanpoko gizarte-eragileekikoak (Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeekikoa, gizarteko mugimenduekikoa, etab.), era horretan, eragin politikoa beneratzen eraginkorra izan dadin.

Aurreko horrekin lotuta, zehaztu den lan-ildo baten helburua da unibertsitateko erkidegoa eta instituzioa bera tartean sar daitezten, izaera eraldatzailea duten gizarteko mobilizazioetan. Proposamen horrek bereziki azpimarratzen du unibertsitateak gizarteko eragile bizi eta hurbil gisa duen zeregina, gizartearen bilakaeratik aparte -edo gaineratik- kokatuta dagoen gune elitista gisa izan duen tradiziozko jarreraren aurrez aurre.

Garapenerako Hezkuntzaren onarpena aldarrikatu behar da, jakintza, ikerkuntza eta irakaskuntzarako esparru gisa, jakintzaren gainerako arloak dauden maila berean baitago.

Azken ildo estrategikoari jarraiki, estrategiak zehaztu behar dira eragin politikoa izateko, eta estrategia horiek argi eta garbi zehaztu behar dituzte eragin horren helburuak eta, era berean, hartzaileak izango diren instituzioak bereizi behar dituzte. Horren adibide bat honako hau izan liteke: Boloniako esparruan, bere jardueran osoan Garapenerako Hezkuntzaren ikuspuntua barne har dezaten, unibertsitateko irakasleei aholkularitza eta prestakuntza emateko zereginak beren gain hartzen dituzten organoen gainean -Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuaren gainean²⁰- eragina izatea.

²⁰ www.ehu.es/ehusfera/helaz/



Ondorioak

Txosten honen hasieran, galdera batzuk bota ditugu, galdera horiei buruzko hausnarketa batzuk egin nahi genituelako. Galdera baten arabera, ezinbestez egiaztatu behar zen ea abiaburuko hipotesia betetzen ote zen -Garapenerako Hezkuntza protagonismoa galtzen ari dela unibertsitatearen esparruan eta, aldi berean, lankidetzara bera instituzionalizatzen ari dela. Hargatik, galdetzen genuen ea egokia ote zen txosten honetan aztertzen den gertaera -Garapenerako Hezkuntzari buruzko jardunaldiak-, eta ea haren egitura eta garapena sendoak ote ziren jardunaldiei lotutako helburuak bete ahal izateko. Azaldu dugun azterketaren ondoren, ondorio hau ater dezakegu:

1. Jardunaldien helburua zen Garapenerako Hezkuntzaren egoera berrikustea, diagnostiko baten ondorioak gizarteratzen eta eztabaidarako zabaltzen, diagnostiko horren mezu nagusia horixe baitzen, hain zuzen. Garapenerako Hezkuntzak unibertsitatean ez du argitasunik, ez garrantzirik, ez baliabiderik egituratzeko, eta, beraz, eztabaida piztu behar da eta estrategiak proposatu behar dira, egoera horren aurrean ikuspegia eta koherentzia dituzten estrategiak. Izan ere, gertaera sustatzen duen antolakuntzan, zentzua argi eta garbi dago: hausnarketa eta eztabaida piztu behar dira, lehenik eta behin UPV/EHU, eta bigarrenik estatu osoan. Hortaz, zorrotz betetzen da Garapenerako Hezkuntza unera egokituta egoteko eta egokia izateko baldintza.
2. Jardunaldiak egokiak izan ote dira helburu horri begira? Bere egitura eta bera ezartzeko kudeaketa aintzat

hartuta, erantzunak baiezkoa izan behar du. Izan ere, abiaburua diagnostikoa da, Atlantikoaren bi aldeetan txostenak egiten dira, eta, horien bidez, Garapenerako Hezkuntzak unibertsitatean izan ahal dituen eta behar dituen alderdi guztiak adierazten dira -proposamen eta esperientzia zehatzak abiaburutzat hartuta-, kontuan izan beharreko estrategien multzo osoari dagokionez: sentsibilizazio, prestakuntza, ikerkuntza eta eragin politikoari dagokienez. Horrez gain, agerian uzten da zeharkakotasunak duen garrantzia, eta, oro har, unibertsitatean eta, bereziki, bere erkidegoen eta kideen konpromiso etiko eta sozialarekin duen harreman estua. Eta gertaeran parte hartzen duten pertsonak hori guztia aztertzen, hausnartzen eta eztabaidatzen dute, eta horri buruzko proposamenak egiten dituzte. Hala, bada, jardunaldiek etorkizunari begira garatu beharko lirakekeen ildo estrategikoen multzo interesgarri bat aurkezten dute.

3. Jardunaldiek etengabe adierazten duten ildoak da Garapenerako Hezkuntzaren esparrua ez dela Garapenerako Unibertsitateko Lankidetzaren menpean jarri behar, ez eta horretara murriztu behar ere; aitzitik, paraleloan joan behar du, horri lotuta eta harekin bat etorrita. Garapenerako Hezkuntzak berezko diskurtsoa du. Aalde bat lankidetzaren arloari dagokio; baina beste arlo askoz ere zabalagoa da, unibertsitateko praktikaren definizioan bertan dago txertatuta, hezkuntzako zereginari lotuta, eta eragile bat da gizartea aldatzeko eta eraldatzeko. Hortaz, instituzionalizatu behar da, baina, horrez gain, politika eta baliabide egokiak jarri behar dira

horretarako. Horrek guztiak zeharkako izaera izan behar du, eta koherentzia izan behar du unibertsitateko praktika osoarekin. Ikuspegi desiragarri horren aurrean, nabaria da kontraesan batzuk daudela, nagusi den globalizazio neoliberalak unibertsitateko politikan eta zereginean bultzatzen duen orientabideari dagokionez. Alabaina, agerian da joera horiei aurre egiteak eta praktika alternatiboak egiteak areago indartuko duela Garapenerako Hezkuntzaren zentzua.

4. Bestetik, jardunaldietan ikusi ahal izan denez, Garapenerako Hezkuntza sistematikoki parekatzen da sentibilizazioko estrategiekin, eta ez beste ezerekin; eta hori arriskutsua da, irakaskuntza, ikerkuntza, eragin politiko eta gizarteko mobilizazioaren bidez ekiteko aukera ezkututzen eta estaltzen duelako. Jardunaldiek agerian uzten dute Goi-mailako Hezkuntzako instituzioekin bat datorren Garapenerako Hezkuntzaren edukiak dituen aberastasuna eta aniztasuna. Gainera, aldi berean, argi egiaztatzen dute hezkuntzako politika akademiko ofizialen ikuspegi mugatua eta murrizta dela, eta nabarmen-tzen dute unibertsitateko eragileek berek, eta irakasleen eta ikertzaileen erkidegoak berak beren gain hartu behar duten zeregina.
5. “Txiroitutako edo aberastutako” gizarteetan kokatuta dauden alde batera utzita, bidezkoa denez, unibertsitateko Garapenerako Hezkuntzak dituen arazoek lotura dute tokiko testuinguru desberdinekin eta arazoei aurre egiteko era askotako estrategiekin. Horri dagokionez,

unibertsitateen arteko lankidetzak berak lotura du globalizazioko proposamen alternatiboen erronkekin bat datorren Garapenerako Hezkuntzarekin, eta guk gai izan behar dugu horiek guztiak harremanetan eta sarean jartzeko, elkar indartze aldera.

6. Garapenerako Hezkuntza instituzionalizatzeko ekimen berezien (ikasgai, titulu, ikerketako ildo, proiektu eta zentroen) eta zeharkako orientabideen arteko harremana ez dago guztiz konponduta, baina elkarren arteko osagarriak diren estrategiatzat jotzen dira. Guztiok dute helburua Garapenerako Hezkuntzaren alderdi akademikoa eta zientifikoa indartzea dela jotzen da. Prozesu horretan, bi ildoak behar dira, dinamikak sortzeko, eta, horren bidez, Garapenerako Hezkuntza akademian ikusgai jartzeko eta, aldi berean, unibertsitateko zeregineko ekimenekin duen lotura sustatzeko. Eta, hori egiteaz bat, Garapenerako Hezkuntza tresna egokitzat jotzen da unibertsitatearen konpromiso etikoa eta soziala eraginkorra izan dadin eta handitu dadin.
7. Garapenerako Hezkuntzaren 5. belaunaldia izeneko oraingo eredia, herritartasun globalerako hezkuntza, ikuspegi garrantzitsua da, baina, hala ere, areago zabaldu beharko litzateke eta konplexuago izan beharko luke, hala garapenaren ikuspegi sozial alternatiboek dago-kienez -hala nola, tokiko giza garapen iraunkor, *sumak kawsay*, deshazkunde, demokrazia barneratzaile edota “bizitzeko moduko bizitzei” dagokienez, besteak beste-, nola mundu ez-formal eta informalararekin, erkidegoaren

konpromisoarekin, ikaskuntzaren alderdi globalarekin eta kolektiboarekin, eta gizarteko eragileen inplikazioarekin hezkuntzak duen eginkizun soziala eta kulturala berrezarriko duten hezkuntzako alternatiben ikuspegitik. Aipamen horiek guztiak koherenteagoak dira unibertsitateko Garapenerako Hezkuntzaren ikuskerarekin, hau da, gertaera honetan azaltzen den eta Garapenerako Hezkuntzako beste arlo eta eragile batzuen nolabaiteko oihartzuna duen ikuskerarekin. Unibertsitateak laguntza eman behar du eztabaida hori pizteko eta tartean dauden arlo guztietatik bere ondorioak hedatzeko.

8. Azkenik, zaila da gertaera honek etorkizunean zer-nolako eragina izango duen zehaztea. Nolanahi ere, nabaria da gehienbat garrantzi kualitatiboa izan beharko lukeela, alegia garrantziak ez lukeela kuantitatiboa izan

beharko. Ez zeuden diren edo izan daitezkeen pertsona guztiak; baina dauden gai, eztabaida, proposamen eta estrategia guztiak izan ziren bertan. Horrek esan nahi du hirugarren polo bat dagoela, eta, mugatua bada ere, benetako gaitasuna izan dezakeela unibertsitatea bezalako esparru batean, hor, Garapenerako Hezkuntzari buruz egiten den berriazko hausnarketa ahula baita (hori argi agertzen da unibertsitate eta lankidetzari buruzko foroetan, Garapenerako Hezkuntzari buruz berriaz egiten den hausnarketa urtuta agertzen baita, bigarren mailetara gero eta baztertuago). Bitartean, guztion konpromisoa hauxe da -eta txosten honen bidez, horretarako laguntza eman dugulakoan gaude-: gure eskura dauden baliabide guztiak erabili eta ezagutzera eman behar ditugu, horren gaineko jakintza hedatzeko eta haren agerpena indartzeko.



Bibliografia

1. [Bibliografia](#)

2. [Bibliografia](#)

3. [Bibliografia](#)

4. [Bibliografia](#)

5. [Bibliografia](#)

6. [Bibliografia](#)

7. [Bibliografia](#)

8. [Bibliografia](#)

9. [Bibliografia](#)

10. [Bibliografia](#)

11. [Bibliografia](#)

12. [Bibliografia](#)

BONI, A. (2011) "Educación para la ciudadanía global. Significados y espacios para un cosmopolitismo transformador", *Revista Española de Educación Comparada*, 17 (2011), 65-68.

BONI, A., MCDONALD, P. eta PERIS, J., (2012): "Cultivating engineers' humanity: Fostering cosmopolitanism in a Technical University". *International Journal of Educational Development* 32, 179-186 or.

BONI, A. eta PEREZ FOGUET, A. (arg.) (2006): *Construir la ciudadanía Global desde la Universidad*. Bartzelona, Intermon-Oxfam; Ingeniería sin Fronteras.

BOURN, D. (2012): "Educación para el Desarrollo: De corriente minoritaria a corriente establecida", *Educación Global Research*, 1, 40-55 or.

CELORIO, J.J. (2007) "Reconstruir una socialización crítica", hemen: HEGOA (2007): *Actas III Congreso de Educación para el Desarrollo. La educación transformadora ante los desafíos de la Globalización*. Vitoria-Gasteiz, 2006ko abenduaren 7a, 8a eta 9a, Hegoa, Bilbao, 29-50 or. Hemen dago eskuragarri: <http://pdf2.hegoa.efaber.net/entry/content/226/actasdef.pdf>

FUEYO, A. (2007): "El Espacio Europeo de Educación Superior. ¿Un marco para la Educación para el Desarrollo?", hemen: HEGOA (2007): *Actas III Congreso de Educación para el Desarrollo. La educación transformadora ante los desafíos de la Globalización*. Vitoria-Gasteiz, 2006ko abenduaren 7a, 8a eta 9a, Hegoa, bilbao. Hemen dago eskuragarri: <http://pdf2.hegoa.efaber.net/entry/content/226/actasdef.pdf>

FUEYO, A. (2008): "La Educación para el Desarrollo en la reforma de las titulaciones universitarias", hemen: *Cuadernos Internacionales de Tecnologías para el Desarrollo Humano*, 7. zk., 44-48 or.

Garapenerako Hezkuntza unibertsitatean izeneko I. Biltzarra. Valladolideko Unibertsitatea, 2002ko azaroaren 8a eta 9a.

HEGOA (2007): *Actas III Congreso de Educación para el Desarrollo. La educación transformadora ante los desafíos de la Globalización*. Vitoria-Gasteiz, 2006ko abenduaren 7a, 8a eta 9a. Hemen dago eskuragarri: <http://pdf2.hegoa.efaber.net/entry/content/226/actasdef.pdf>

HEGOA (2011): *Garapenerako Hezkuntza unibertsitatean izeneko Jardunaldiak*. Hemen dago eskuragarri: www.hegoa.ehu.es/es/educacion/jornadas_de_educacion_para_el_desarrollo_en_la_universidad

OCUD (2011): *Conclusiones II Jornadas OCUD* (2011ko urria).

ORTEGA, M.L. (2008): *Estrategia de Educación para el Desarrollo de la Cooperación Española*. Madril, AECID. Hemen dago eskuragarri: www.maec.es/es/MenuPpal/CooperacionInternacional/Publicacionesydocumentacion/Documents/DES%20Educaci%C3%B3n%20para%20el%20Desarrollo.pdf

Unibertsitate eta Garapenerako Lankidetzari buruzko Estatuko II. Biltzarra. Murtziako Unibertsitatea, 2004ko api-

rilaren 14a, 15a eta 16a. Hemen dago eskuragarri: http://webs2002.uab.es/fas/congresocooperacion/descargas/universidad_y_cooperacion.pdf

Unibertsitate eta Garapenerako Lankidetzari buruzko III. Biltzarra. *Por un Mundo con Equidad*, Madril, 2006ko apirilaren 26a, 27a eta 28a.

Unibertsitate eta Garapenerako Lankidetzari buruzko IV. Biltzarra. 2008ko azaroaren 12a, 13a eta 14a. Bellaterra,

Bartzelona. Hemen dago eskuragarri: <http://webs2002.uab.es/fas/congresocooperacion/programa.html>

Unibertsitate eta Garapenerako Lankidetzari buruzko V. Biltzarra. *La Cooperación Universitaria al Desarrollo ante los retos de un mundo en crisis*. Cadizko Biltzar Jauregia, 2011ko apirilaren 6a, 7a eta 8a. Zati bat hemen dago eskuragarri: <http://campusvirtualo1.uca.es/jnillo/ocs/index.php/UYD/VICUyD>